



2022/01/27KO UDALBATZAREN OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2022/01/27
Hasiera ordua: 19:00
Amaiera ordua: 19:40

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Gorka Astondoa Altuna
Santiago Balantzategi Beitia
Ana Maria Martiarena Arregi
Iban Herrarte Arana
Oihana Ameskoa Perez

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Juan Antonio Peña Orobengoa

Ez bertaratuak:

Maria Cristina Etxenausia Irure
Pedro Elosegui González de Gamarra

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzaila, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA	3
2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.	3
3. HASIERAKO ONARPENA EMATEA AREXOLA, ARRIOLA, BARAJUEN, SUÑA, URIBARRI ETA ZABOLA AUZOETAKO PLAN BEREZIAREN TESTU BATERATUARI.	3
4. HASIERAKO ONARPENA EMATEA AZKOAGA, ETXAGUEN, GANTZAGA, GUREIA ETA UNTZILLA AUZOETAKO PLAN BEREZIARI.	3
5. LIZITAZIO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA, UDAL KIROLDEGIA ETA BESTE HAINBAT UDAL GUNEREN GARBIKETA, ZAIINTZA ETA MANTENTZE ZERBITZUA KONTRATATZEKO.	4
6. ONARTZEA, BADAGOKIO, MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALAREKIN BAT EGITEA.	4
7. GALDERAK ETA ESKAERAK.	6



1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA.

Alkate-Lehendakariak 2021eko azaroaren 25eko ohiko bilkurako aktaren gainean inork oharrik ote duen galdetu du.

Inork akta horri buruz oharpenik ez duenez, lehendakariak akta onartzeko bozketa deitu du eta aho batez onartu da, 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Udalbatza, besterik gabe, azken ohiko bilkuratik egin diren dekretuen jakitun gelditu da (410/21etik 468/21era eta 01/22tik 25/22ra).

3. HASIERAKO ONARPENAREN EMATEA AREXOLA, ARRIOLA, BARAJUEN, SUÑA, URIBARRI ETA ZABOLA AUZOETAKO PLAN BEREZIAREN TESTU BATERATUARI.

Alkateak gogorarazten du, 2021eko otsailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran hasierako onarpena eman zitzaiola Aramaioko auzoetako plan berezien lehen faseari, hau da, Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabola auzoetako plan bereziari. Baina, ondorengo fasean, batetik, eskatutako txosten sektorialen ondorioz; eta, bestetik, egindako alegazioei emandako erantzunaren ondorioz, hasierako testuari zenbait aldaketa egin zitzaizkion, azken finean, garrantzia duten aldaketak.

Indarrean dagoen 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak, 95 eta ondorengo artikuluetan arautzen du plan berezien onarpenerako jardunbidea. Bertan, agintzen du, aldaketa horiek funtsezkoak direnean, testu bategin berria egin behar dela, hasierako onarpena berriz eman eta berriz ere jarri beharko dela jendaurrean.

Udala aholkatzen duen arkitektoak egindako txostenean jasotzen dira plan berezi horiei dagozkien ezaugarri, berezitasunak, eta izandako aldaketak. Teknikariak behar bezala azaldu zituen hirigintza batzordearen aurretik bereziki egindako bileran.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Hirigintza Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

Lehena.- Hasierako onarpena ematea Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabola auzoetako Plan Bereziaren testu bateratuari.

Bigarrena.- Ontzat ematea planaren talde idazleak prestatutako aurretik izandako alegazioen erantzunak, bere egin eta interesdunei jakinaraztea.

Hirugarrena.- Plan Bereziaren testu bateratuari emandako hasierako onarpenaren berri ematea eragindako sektoreetan eskumenak dituzten herri-administrazioei, dagokion txostena egin dezaten.

Laugarrena.- Iragarkia argitaratzea Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta jendaurrean jartzea espedientea 20 egunez, argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Epe horretan, espedientea erakusgai izango da udal bulegoetan, edozein interesdunek aztertu eta bidezkotzat jotzen dituen alegazioak aurkezteko.

Bosgarrena.- Honen berri ematen duen iragarkia argitaratzea lurraldean tirada gehien duen egunkarian.

Seigarrena.- Interesdunen eskura jartzea espedientea udal honen egoitza elektronikoan (helbidea: <https://www.aramaio.eus>).

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu du eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Hirigintza Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.”

4. HASIERAKO ONARPENAREN EMATEA AZKOAGA, ETXAGUEN, GANTZAGA, GUREIA ETA UNTZILLA AUZOETAKO PLAN BEREZIARI.

Alkateak adierazten du, auzoetako plan berezien bigarren fasea ere prest dagoela. Lehenengokoak jasan behar izan dituen atzerapenak direla medio, momentuz, biak elkarrekin joango direla. Bigarren fasearen kasuan, Azkoaga, Etxaguen, Gantzaga, Gureia eta Untzilla auzoak hartzen direla kontuan.



Kasu honetan ere, udala aholkatzen duen arkitektoak egindako txostenean jasotzen dira plan berezi horiei dagozkien ezaugarri eta berezitasunak. Teknikariak behar bezala azaldu zituen hirigintza batzordearen aurretik bereziki egindako bileran. Orohar, lehenengo faseko plan berezien baldintzak mantendu egiten dira bigarrengo honetan.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Hirigintza Batzordeak Udaltzari egiten dion proposamena:

Lehena.- Hasierako onarpena ematea Azkoaga, Etxaguen, Gantzaga, Gureia eta Untzilla auzoetako Plan Bereziari.

Bigarrena.- Honen berri ematea eragindako sektoreetan eskumenak dituzten herri-administrazioei, dagokion txostena egin dezaten.

Hirugarrena.- Iragarkia argitaratzea Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta jendaurrean jartzea espedientea 20 egunez, argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita. Epe horretan, espedientea erakusgai izango da udal bulegoetan, edozein interesdunek aztertu eta bidezkoztat jotzen dituen alegazioak aurkezteko.

Laugarrena.- Honen berri ematen duen iragarkia argitaratzea I lurraldean tirada gehien duen egunkarian.

Bosgarrena.- Interesdunen eskura jartzea espedientea udal honen egoitza elektronikoa (helbidea: <https://www.aramaio.eus>).

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udaltzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Hirigintza Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU."

5. LIZITAZIO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA, UDAL KIROLDEGIA ETA BESTE HAINBAT UDAL GUNEREN GARBIKETA, ZAINZA ETA MANTENTZE ZERBITZUA KONTRATATZEKO.

Alkateak gogorarazten du, indarrean dagoen kontratua bukatzeaz dagoela eta ezinbestekoa dela hau kontratatzeke lehiaketa abiatzea, zerbitzuan etenik izan ez dadin.

Hartara, aurkezten du Zerbitzu Batzordeak Udaltzari egiten dion proposamena:

"Lehena.- Hasiera ematea Aramaioko Udalaren esku dauden Udal Kiroldegia eta beste hainbat udal guneren garbiketa, zaintza eta mantentze zerbitzua kontratatzeke espedienteari.

Bigarrena.- Udal zerbitzuei agintzea dagokion jardunbidea aurrera eramateko egin beharrei hasiera eman diezaietela."

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udaltzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Zerbitzu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU."

6. ONARTZEA, BADAGOKIO, MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALAREKIN BAT EGITEA.

Migratorako Euskal Itun Soziala izeneko dokumentua sustatu du Eusko Jaurlaritzak. gaur egungo migrazio-erronkari pluraltasunaren, elkartasunaren eta beharren ikuspuntutik erantzuteko.

"Jaso nahiko genukeena eskaintzea" da testuaren izena eta. guztira, 10 konpromiso jasotzen ditu "immigrazio erregularizatuari", "erregularizatu gabekoari"; hainbat eragileren arteko "erantzukidetasunari" "bidaidetik gabeko adingabe eta gazteei" edo bizikidetzaren kulturari lotuak, besteak beste.

Ekimen honen bidez. EAEn diskurtso partekatua eta batasun-irudia sendotu nahi dira, migrazio-erronkei modu positiboan erantzuteko eta demagogia populistari aurre egiteko. Dokumentuak aurrerapen alderdi bat ere badu; EAEko gizarteak immigrazioa behar du bere lan eta demografia beharrei erantzuteko.

Xenofobiaren erabilera populista oraren aurrean, gehiengo demokratikoaren pisua eraginkor egingo duen batasuna mantentzeko konpromisoa hartu nahi da.

Gizarte Ongizate Batzordean aztertuta izan da testua eta horrela dio:

"JASO NAHIKO GENUKEENA ESKAINTZEA

Migrazioa ez da egoeraren araberako fenomeno. baizik eta munduan, Europan eta Euskadin gertatzen den egiturazko egoera bat. Erantzun egokia eskaintzea obligazioa da barne-zuzenbidean eta Europako zuzenbidean. Dimensio arauemailea dauka. Etorrinek asilo-eskatzailerek edo zaugarritasun-egoeran daudenez eskubideak eta betebeharrak dituzte, eta eskubide eta betebeharrak horiek bideratu egin behar dira.



Etika demokratikoko dimentsioa ere badu: izan ere, definitu egiten du gizarteak elkartasunerako eta zibilizaziorako daukan gaitasuna. Babesgabetasun-egoeran dauden pertsonetikiko erreakzio indibidual eta kolektiboak jartzen dira jokoan. Edo bakoitzak ahal duena egiten du, edo ondare komuna partekatzeko aukera sustatzen da. Etika unibertsalaren funtsezko premisetako bat da besteei ez egitea besteek geuri egiterik nahi ez duguna. Migrazioari dagokienez, jaso beharko genukeena eskeintzea da printzipio etiko nagusia, baldin eta gu ere antzeko egoera batean suertatuko bagina.

Dimentsio arauemaileaz eta etikoaz gain, migrazioen erronkari eman beharreko erantzunak aurrerabidearen alderdia ere jasotzen du.

Hala ere, migratzaileak mehatxu gisa aurkezten dituzten diskurtso indartsuak mundu osoan ari dira ugaritzen. Faltsutasunez, arrazismoz eta populismoz zamatutako aurreiritziek errendimendu alderdikoia lortu nahi dute, beldurraren bitartez. Horren ondorioetako bat da Europako eredu eta balioak zalantzan jartzen direla, ustekabea. Sintoma kezagarriak agertzen dira: kanpoko zein barruko mugak modu faktikoan berrezartzen dira; errefuxiatuen eta etorkinen giza eskubideen aitopenak atzera egiten du; gorroto diskurtsoak: adierazpen politiko-instituzional argiko xenofobia agertzen da: eta ezin da migrazio-politika erkiderik erai.

Orain arte, Euskadik modu bateratu eta solidarioan erantzun izan die migrazioaren erronkak dituen agerpenei. Alabaina, populismo xenofoboaren mehatxua hortxe dago, eta bere burua egituratzeko eta demagogiaren bitartez barreiatzeko asmoa dauka. Migrazioarako Euskal Itun Sozialerako proposamen hau oztopoen eta aukeren testuinguru horretan dago kokatuta.

Bere helburuek proiektio etiko, prebentibo eta proaktiboa dute. Itun honen helburu etikoa erantzun solidario eta erantzulea sendotzea da, migratzaileen beharriari dagokienez. Helburu prebentiboa, berriz. Zeharkako batasun sozial eta politikoa eratzea da, xenofobiaren aitzakiapen sortutako populismoen asmoak ezerezean uzteko. Eta helburu pragmatikoa da migrazioaren erronkari gure gizartearen hazkunde- eta aurrerabide- prozesuaren parte gisa heltzea.

ABIAPUNTUAK. Migrazioarako Euskal Itun Sozial hau sinatzen dugun persona, entitate eta erakundeek

ondorengo abiapuntu hauek partekatzen ditugu.

A. Premisa politikoa: pluraltasuna. Dibertsitatea gure historiaren eta nortasun kolektiboaren funtsezko zatia da. Beste kultura eta jatorri euskal gizartearen defendatzen dugu, kulturarteko pluraltasunaren balioekin konprometitutakoa eta herritartasun inklusiboa eraikitzen lagunduko duena.

B. Premisa etikoa: elkartasuna. Migrazioaren erronka berriak interpelazio etikoak dira, eta horrek elkartasuna. diskriminazio eza eta etorkinen zein bertokoen eskubide eta obligazioak parekatu beharra eskatzen du, eta halaxe onartzen dugu, konpromiso partekatuko gisa.

C. Premisa pragmatikoa: beharrezkoa. Euskal gizarteak, familien babeserako politikaz gain, inmigrazioa behar du, lanaren eta demografiaren inguruko beharriari erantzun ahal izateko. Euskadiren ondorengo hamarkadetako hazkundeari dagokionez, inmigrazioa onerako izango da eta guk aukera gisa helduko diogu gai horri.

ZEHARKAKO AUKERAK. Itun hau sinatzen dugunok geure egiten ditugu, gure gaitasun eta eskumenen neurrian, zeharkako aukera hauek:

I. Bizikidetzak. Harrera eta integrazioa babesten ditugu, bai eta elkartasunaren, aniztasunaren eta bizikidetzaren diskurtsoa ere. Arbuiatu egiten ditugu beste kultura edo jatorrietako pertsonen aurkako aurreiritzietan eta estereotipoetan oinarritutako diskurtso estigmatizatzaileak.

II. Giza Eskubideak. Oinarrizko eskubideen titulatasuna ahalik eta gehien zabaltzea sustatzen dugu, nazionalitatea edozein dela ere, tratatu eta aukera berdintasunaren printzipioan oinarrituta eta diskriminazio mota ororen aurrean.

III. Zeharkakotasuna. Euskal administrazioen sektore-politiketan (enplegua, kultura, etxebizitza, gizarte zerbitzuak, segurtasuna....) migrazioak dakarren kultura-aniztasunaren begirada txertatzea.

IV. Kohesioa. Irrotasunez babesten dugu hezkuntzaren, osasunaren edota oinarrizko prestazio sozialen unibertsaltasuna, bai eta enplegurako eta etxebizitzarako trebakuntza eta integrazioa jasotzeko ildoak mantentzea ere, eskubideen eta betebeharren berdintasun-esparruan.

V. Hezkuntza. Heziketa-espazio inklusiboen eraketa sustatzen dugu, integrazioarako eta bizikidetzarako balio estrategiko gisa. Errealitate desberdinak partekatzea, ezagutzea eta estimatzea pedagogia erabakigarria da gure ikasleen gizarteratze-prozesuan.

VI. Tokiko esparrua. Tokiko esparruaren garrantzia nabarmentzen dugu. eguneroko integrazio efektiborako agertoki estrategiko gisa. Bizikidetzak hobetzeko eta kohesio soziala areagotzeko lanean, udal ekintzak lehenetsuzko balioa dauka eta jardun hori babestu eta sustatu beharra dago.

VII. Berdintasuna. Genero-berdintasunarekiko konpromisoa partekatzen dugu, gure bizikidetzak eraikitzeko oinarrizko eta funtsezko printzipioa den aldetik; era berean, maila unibertsalean hedatzeko duen bokazioa ere partekatzen dugu, kultura eta erlijio guztiak kontuan hartuta. Konpromiso hori migrazio-politiketan eta gizarte babeseko politiketan genero ikuspegia modu eraginkorrean sartzea gauzatzen da.

VIII. Hizkuntzak. Gizarte hartzaileko hizkuntzak ikastearen alde egiten dugu, migratzaileen integrazioarako eta egokitzapenerako funtsezko faktore gisa. Beharrezkotzat jotzen dugu elkarre-ehunaren zeregina indartzea, elkarriketa eta lankidetzak iraunkorreko mekanismoak ezarri, migratzaileen erakundeak harreraren eta integrazioan duten zeregina sustatuz. Beraz, horretarako behar diren bitartekoak ahalbidetu behar dira.

IX. Lankidetzak. Maila instituzional eta sozialen arteko lankidetzaren lehenetsuna sustatzen dugu. Arlo honetan, beste ezein arlotan baino beharrezkoagoa da lankidetzak. Elkartzen gaituena bateratzea, bereizten gaituenari aurre eginez.

KONPROMISO ZEHATZAK. Aurreko guztiaz, erabateko babesa ematen diogu konpromiso zehatz hauen garapeneri. dagozkien eskumen-esparruetan:

I. Erantzunkidetasuna. Beste eragile batzuekin lankidetzan aritzea, EB osoan erantzunkidetasunaren printzipioa sustatzeko. Horretarako, lankidetzak leialan aritu behar da estatuko eta Europako erakundeekin, eta eskatzen eta eskaintzen den konpromisoa islatzen duten proposamenak garatu behar dira.



2. Irmotasuna. Batasun sozial eta politikoari eustea: modu horretan. mezu xenofoboak erabiliz abantaila politiko edo elektoralak lortu nahi den guztietan. gehiengo demokratikoaren pisua nabarmenduko da.
 3. Inmigratio erregularizatua. Inmigratio erregularizatuaren aukerak areagotuko dituzten ildoak sustatzea, kontuan hartuta jatorrizko herrialdeetako errealitateak, migratzaileen migratio-proiektuak eta erronka demografikoak Europan planteatzen dituen beharrianak.
 4. Asilo-eskatzaileak eta errefuxiatuak. Nazioarteko babes-eskatzaileen eta errefuxiatuen harrera eta integrazioa modu kuantitatiboan zein kualitatiboan hobetzeko ekintzak garatzea. Europan, estatuan eta Euskadin.
 5. Zaurgarritasun-egoeran dauden migratzaileak. Behar diren baliabideak eskaintzea zaurgarritasun-egoeran dauden migratzaileei erantzun humanitario egokia emateko. arreta berezia jarriz emakumeengan, adingabeengan eta giza eskubideen urraketan biktimgan.
 6. Erregularizatu gabeko egoeran dauden migratzaileak. Behar diren baliabideak artikulatzea, iristen diren iragaitzako migratzaileei edo erregularizatutako dokumentaziorik gabekoei erantzun solidario eta humanitarioa eskaintzeko. modu horretan autonomia prozesuen alde egiteko.
 7. Bidaidetik Gabeko Adingabe Atzeritarrak (BGAA) eta Bidaidetik Gabeko Gazte Atzeritarrak (BGGA). Behar diren baliabideak edukitzea. legezko betebeharre, adingabearen interes gorenen printzipioaren betearazpenari eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuari erantzun partekatua, bidezko eta egokia eskaintzeko.
 8. Esku-hartze humanitarioa. Gure gaitasun instituzionalen neurrian, dei humanitarioei erantzutea, bai erakundeek egindakoei, bai bertatik bertara (Mediterraneo itsasoan, jatorrizko herrialdeetan edo iragaitzan) aritzen diren nazioarteko zein tokiko GKE-ek egindakoei.
 9. Prebentziozko eskuhartzea. Lankidetzaren proiektuak babestea edo garatzea, migratzaileen jatorrizko herrialdeetako pobrezia, bidegabekeriaren eta desberdintasunen zergatiak eraldatzeko, eta herrialde horietako giza kapitala eta indarguneak sendotzeko.
 10. Bizikidetzaren kultura. Bizikidetzaren kultura partekatzea, elkartasunean, erantzunkidetasunean eta pluraltasunaren, giza eskubideen eta berdintasunaren defentsan oinarrituta, eta edozein arrazismo edota bazterketa arbuatuta.”
- Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Gizarte Ongizate Batzordearen proposamenez, ONETSI ETA BERE EGIN DU.”

7. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Juan Antonio Peña Orobengoa zinegotziak, hainbat galdera egiten dizkio alkateari:

- “Herriko pintadak salatu al dira Ertzaintzan? Arrasaten, udaletxera deituta haiek kentzeaz arduratzen dira. Zergatik ez da gauza bera egiten Aramaion? Noizko garbituko dira udalerriko pintadak?”
Hurrengo aurrekonturako partida bat sartzea proposatzen dugu.”

Alkateak erantzuten dio baietz, salaketa jarria dagoela. Bestalde, Arrasateko Udalak ez dituela guztiak garbitzen era horretan. Gainera, garbiketa egiteko aurrekontua eskatua dago eta jasotzeko zain dago udala. Partida sortzeari buruz, ordea, ez dela beharrezkoa zehazki horretarako partida bat sortzea, badagoela beste bat aproposa horretara bideratzeko. Kontua da eraikin publikoetakoak garbitzea argi dagoen bezala, ez daudela hain ziur jabetza pribatuen kasuan zer egin, aurrekari arriskutsua izan daitekeela. Landu beharreko kontua dela kontu honekin nola jokatu.

- “Frontoian dauden ihesak konpondu, noizko? Urteak daramatzagu arazoarekin. Eta leihoak jarri, noizko?”

Gorka Astondoa Altuna zinegotziak erantzuten du orain egingo dela guztia. Foru Aldundiko dirulaguntzen deialdian sartuta dago, kiroldegiko teilatua konponduko da eta baita ere atzeko horma. Proiektua egina eta onartua dago eta hurrengo izango da lanak esleitu eta exekutatzeko.

- “Noizko hobetuko da plazako argiteria?”

Iban Herrarte Arana zinegotziak erantzuten du, egin zela horri buruzko azterlana eta ondorioztatu zen, ez zela beharrezkoa argi gehiago jartzea. Egindako azken aldaketekin, araudi berrira egokitu zela guztia eta luminaria ere aldatu zirela. Behar bada, inpresio kontua izan daitekeela argi gutxiago dagoen zentzazio hori. Beharrezkoa bada, eskatuko zaiola beste neurketa bat horretan aritzen den enpresari. Gaineratzen du, aurretik ere gai honi hitz egin dutela jada.

- “Solaia eta Ametzurako bidea noizko konponduko da?”

Alkateak dio, azken euri jasek eragindako kalteen artean, hori da lehenengo konponduko den bidea.

- “Barrutiaren aurreko aldapan eta eskaileretan baranda noizko? Oso labainkorra eta arriskutsua dago.”



Alkateak erantzuten du lana egiteko aginduta dagoela baina egin behar duen enpresa noiz etorriko den zain dagoela udala, lan askorekin omen daude eta. Halaber, adierazten du, oso ohikoa dela herriz kanpoko enpresetara jotzen dugunean, luze itxaron beharra.

- "Parkeko iturriaren ondoko pasealekua garbiketa noizko? Lokotxa eta irristakorra arriskutsuan dago."

Iban Herrarte Arana zinegotziak erantzuten du ez dagoela udalean arazo horren berririk, hala ere, kaleko garbiketez arduratzen den lñakiri esango diola hori lehenbailehen konpontzeko.

- "Otxandioko mugaketaren arazoa konpondu al da? Nola?"

Santiago Balantzategi Beitia zinegotziak dio, bere garaian azaldu zuen bezala, bera mugaketa horretara bertaratu zela, egin zituela egin beharreko alegazioak eta, ondoren, ez duela udalak inongo berririk izan.

- "Olaetako Ontza Extrem parkea Aramaion dagoela noizko erreklamatu du udalak? Hau da, adibidez publizitatea egiten duenean, Otxandion dagoela jartzen du. Ezin da ezer egin? Aramaion dagoela adierazi beharko luke"

Alkateak dio aztertuko duela gaia.

- "Udal pistetan berrikuspenak ustiapenaren ostean egiten al dira? Bere egoeraren aktak jasotzen al dira? Bermeak eskatzen al dira indarrean dagoen arauaren arabera?"

Santiago Balantzategi Beitia zinegotziak erantzuten du baietz, erabili aurretik eta ondoren ikusten direla. Kontua da, batzuetan, udaletxean baimena eskatzen dutenerako hasita egoten direla lanak. Bestalde, baimena eskatzen denean, tasa ordaindu eta bermea eratu beharra izaten dute interesdunek.

- "Plazako Ikurriña, noiz arte faltako da? Omenaldi asko eta gero..."

Alkateak jakinarazten du, jartzeko prest dagoela.

- "Ospitale zaharrerako sarbidean, seguritatea noiz bermatuko da?"

Gorka Astondoa Altuna zinegotziak dio hori egina dagoela. Aparejadorearekin hitz egin zuela eta sarbideak ixteko hainbat lan egin zirela.

- "Iturri-zuri iturrian, noiz konponduko da buxadura eta ur gainezka?"

Gorkak erantzuten du, udala aholkatzen duen arkitekto teknikoarekin aztertu izan duela arazoa. Kontua da, Iturri zuriko urbanizazioa egin zenean, ez zela hoditeria berriztu, lehengo mantendu zela eta orain, ur emari haundiek ekartzen duten lurrarekin tratatzen den bakoitzean, urak gainezka egiten du. Horri irtenbidea emateko, obra handi bat egin beharko litzateke, bidea jaso eta hoditeria guztia berritu.

- "Santa Kruz plazaren botatako golardoak, noizko konponduko dira?"

Alkateak erantzuten du kontuan hartuak dituela hurrengo lanen zerrendarako.

- "Udalak Covid pasaportea eskatzen al du antolatzen dituen ekitaldietan?"

Alkateak baietz erantzuten du.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.